

**GOBERNU JUNTAK 2022ko azaroak 28an EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO (lehendakaria)

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA (lehendakariordea)

ANTZUOLA

AINHOA LETE ZABALETA

BERGARA

ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

OÑATI

IZARO ELORZA ARREGI

OÑATI

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

CRISTINA MARQUINA IGARZA

BERGARA

IRAITZ LAZKANO

ELGETA

GORKA ARTOLA

BERGARA

JOSE RAMON ZUBIZARRETA

ESKORIATZA

MAITANE MUÑOZ

ARRASATE

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA

ARRASATE

AINHOA CABERO GARCIA

ARETXABALETA

CRISTINA MARQUINA

MARIA UBARRETXENA CID

ARRASATE

EUGENIO OTSOA UGALDE

LEINTZ-GATZAGA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Leire Ucin Soraluze

2022ko azaroaren 28an, 11:15etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko Gobernu Juntako bilerako akta onartzea, hala badagokio.

Inork ez dauka ezer esateko aurreko katari buruz, beraz, aho batez onartzen da.

2.-Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Inork ez du ezer esateko lehendakariaren ebazpenei buruz.

3.- Debagoieneko Mankomunitateak deitutako hautaketa prozesuetan parte hartzeagatik tasak arautzen diren ordenantza onartzea, hala badagokio.

Hau da tasa proposamena:

- Oposaketa-lehikaetak: 20 Eur

- Lehiaketak: 10 Eur

Elegetako Alkateak, Iraitz Lazkanok, komentatzen du bonifikazioetan aldaketa hau egitea:

Esaldi honen ordez

“% 50eko hobaria aplikatuko zaie enplegu-zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonei, azkenengo sei hilabeteetan.”

Ondorengo hau idaztea

“% 50eko hobaria aplikatuko zaie enplegu-zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonei.”

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (11): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elgoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina, Jose Ramon Zubizarreta

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, 3. puntua aho batez onartzen da.

4.- Debagoieneko Mankomunitateko langileen soldatak %1,5 igotzea onartzea atzeraeraginezko efektuekin, 2022ko urtarrilaren 1etik hasita.

Txostena: 2022 urterako Debagoieneko langileen soldata igoera dela eta

2022ko urtarrilaren 20ko Ohiko Gobernu Juntak erabaki zuen erakundeko langileen soldatak %2 igotzea, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokioenez.

Urriaren 19an 18/2022 Errege Lege-Dekretua onartu zen, besteak beste, sektore publikoko zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak onartzen dituen. VIII. Atalean, 23. artikuluan honako hau xedatzen da:

23. Artikulua. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarria, 2022. urterako.”

1. 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. tituluko I. eta II. ataletan, eta bat datozen gainerako aginduetan xedatutakoaz gain, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izan ditzan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 1,5eko gehikuntza-gehigarria izango dute, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez.

2. Gehikuntza-gehigarri hori 19.Bi artikuluan xedatutako moduan egingo da, eta honako arau hauek beteko ditu:
Lehenengoa. 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie. Beraz, bien baturak, nolahi ere, ehuneko 3,5eko gehieneko ordainsari-igoera globala finkatuko du 2022ko ekitaldirako.

Bigarrena. 2022ko azaroko nominan gauzatuko da, eta atzerapen gisa ordainduko da aurtengo urtariletik urrira bitarteko hilabetei dagokien igoera.

Hirugarrena. Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen eremuan, ordainketa 2022ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko da; eta, nolahi ere, 2023ko martxoaren 31 baino lehen.

3. 2022an, salbuespen gisa, Estatuak baimena eman ahal izango die autonomia-erkidegoei epe luzerako zorpetze-eragiketa berriak formalizatzeko; edo baliabideak esleitzeko finantzaketa- mekanismo gehigarrien kontura, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen laurogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalean aipatzen diren gehigarriak, hain zuzen ere, behar den zenbatekoaren baliokidea, artikulua horretan aurreikusitako ordainsari-igoera gauzatzeko.

Bestalde, egiaztatzen da 2022ko aurrekontuko lehenengo kapituluan nahikoa kreditu dagoela soldata igoera hau finantzatzeko.

Arrasaten, 2022ko azaroaren 22an.

Idazkari-kontuhartzailea

Alde (11): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elgoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina, Jose Ramon Zubizarreta

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, 4. puntua aho batez onartzen da.

5.- Eusko Jaurlaritzako ekonomiaren garapen, jasangarritasun eta ingurumen sailetik emandako ebazpenaren berri ematea, Epele zabortegia irekitzeko dirulaguntzari dagokiona.

Lehendakariak hartzen du hitza: dio Gobernu Juntak urriaren 24an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakia exekutatu, Eusko Jaurlaritzako ingurumen jasangarritasuneko sailburuordetzari eskaera egin zitzaioela Epele zabortegiko 3. zelda irekitzeko lanak finantzatzako dirulaguntza zuzitzeko epea luzatzeko.

Ebazpena heldu dela eta bertan honako hau dioela:

Primero: Denegar la solicitud de ampliación del plazo límite previsto en la base 5º de la subvención concedida mediante acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 30 de noviembre de 2021.

Segundo: Recordar a la parte beneficiaria que el pago de la cantidad prevista en la base 5º para el ejercicio 2022, estará condicionada a la presentación con anterioridad al 15 de enero de 2023, de un informe de gestión, una memoria de actividades, un balance económico financiero, un estado de cuentas, así como un desglose de gastos e ingresos realizados a lo largo de todo el ejercicio 2022 acompañados de las correspondientes facturas u otros justificantes de pago.

Garazi Larreak azaltzen du Javier Orcajorekin hitz egin duela, eta esan ziola ez dagoela 1.000.000 euro zuritu beharrik 2023ko urtarrilak 15erako, bukaeran konpentsatuko zela, baina bai adierazitako dokumentuak aurkeztu behar direla.

Idazkari-kontuhartzaileak esaten du teknikariak ere gauza bera esan ziola berari, baina dirulaguntza arautzen duen oinarrietako 7.oinarriko 3. puntuan hau xedatzen dela:

“ Acreditar con anterioridad a las fechas fijadas en la Bse 5º la efectiva realización de las actividades y la ejecución el gasto subvencionado”.

Beraz, araututa dagoela 1.000.000 euro zuritu behar direla urtarrilak 15 baino lehenago.

6.- Eraldaketa digitalaren esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Debagoieneko Mankomunitatearen arteko hitzarmena onartzea, hala badagokio.

"ETE Digitala" Eraldaketa digitalaren esparruan proiektuak garatzeko GFA eta DGM arteko hitzarmena.

GFAko Berrikuntza Zuzendaritzak, Garapen Agentziako Enpresa Zerbitzuarekin batera, aurreko urteetan "Industria 4.0" programa eta "Gipuzkoa Digitala" izenpean garatu dituzte eskualdeko enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza dinamikak ezartzeko interbentzioak.

2023rako GFAko Berrikuntza Zuzendaritzarekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren babesean "ETE Digitala" egitaraua garatuko da non digitalizazioarekiko enpresen sentsibilizazioa landuko den eta zenbait enpresetan 5-8 interbentzio zehatzak garatuko dira aholkulari teknikoan laguntzaz.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (11): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elgoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina, Jose Ramon Zubizarreta

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, gai ordeneko 6. puntua aho batez onartzen da.

7.- “Elkar-Ekin lanean” enpleguaren sustapenaren eta gizarteratzearen eremuan gobernantza kolaboratiboa sustatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Debagoieneko Mankomunitatearen arteko hitzarmena onartzea, hala badagokio.

GARAPEN EKONOMIKORAKO ESKUALDE AGENTZIA

IRIZPEN TXOSTENA

Elkar Ekin Lanean egitaraua garatzeko GFA eta DGM arteko hitzarmen proposamena.

Azkenengo urteetan Foru Aldundia eta eskualdeetan bultzatutako gizarteratze eta laneratzeko sareen artean "Elkar Ekin Lanean" estrategiaren barneko dinamika sustatu da

Debagoieneko Mankomunitateak, Debagoieneko Gizarteratze eta Laneratze Sarea (DGLS) diseinatu, kudeatu eta koordinatu du bere sorreratik. Eskualdean zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen artapena egiten dituzten eragile ezberdinen arteko elkar ezagutza eta elkarlana bultzatzen du DGLSk. Sarea 2019an eratu zen eta gaur egun izaera iraunkorra du, eragile guztien sinergiak batu eta bazterkerian edo horren arriskuan dauden eskualdeko pertsoneri erantzun integral bat emateko ekintzak burutzen dira.

Orain, GFAk 2023-2024ko ekitaldietarako “Elkar-Ekin-Lanean” strategiaren babesean DGLSko partaideak diren eskualdeko eragile ezberdinen artean bost proiektu garatuko dituzte.

Proiektu horien garapenerako GFAk egingo duen ekarpena, Debagoieneko Mankomunitatearekin sinatzea proposatzen duen hitzarmen baten bitartez bideratzea planteatu du. Hitzarmen horri, proiektu bakoitza kudeatuko duten eragileen taldeko parte-hartzea jasotzen duen laburpena eransten zaio non eragileek exekutatu duten aurrekontua jasotzen den. GFaren ekarpena eragile bakoitzaren parte-hartze horren arabera bideratuko zaio. Betiere, hitzarmenean DGMren eginbeharren artean *"erantsitako aurrekontuan sartuta dauden erakundeei dagozkien ekarpenak transferitzea"* jasotzen da, beraz hitzarmen honi lotutako beste hitzarmen batzuk sinatu beharko ditu DGMk ekarpen horiek bideratzeko. Proiektu bakoitzean laneratze kopuru konkretu bat lortzeko konpromisoa jasotzen da, hori, beti ere, hitzarmenean jasotzen den moduan, malgutasunez aplikatuko da, baina konpromiso horiek ere aipatutako hitzarmenetan jaso beharko dira.

Onartu diren proiektuak eta kopuruak

PROIEKTUA	Aurrekontua	Eskatutakoa	Laneratzek
ZUK ALDATUZ	76.000,00	64.600,00	13

ALKARREKIN ERATU 106.598,25 86.400,00		18
DEBAGOIENA		
LANEAN 236.493,04 201.019,05		50
GAZTEEN		
IBILBIDEAK 151.437,10 128.721,54		11
LAN ARIN		
GARBITASUNA 11.800,00 10.030,00		2
GUZTIRA 582.328,39 490.770,59	94	

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (11): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina, Jose Ramon Zubizarreta
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

Beraz, 7. puntua aho batez onartzen da.

8- Sustapen ekonomikoaren eta lurraldeko enpleguaren proiektuak garatzeko GFA eta Mankomunitatearen arteko hitzarmena onartzea, hala badagokio.

Sustapen Ekonomikoaren eta lurraldeko enpleguaren proiektuak

garatzeko GFA eta DGM arteko hitzarmen proposamena.

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziaren helburu garrantzitsuenetarikoa bat enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna eta iraunkortasuna areagotzea da. Horretaz gain, enpresen jarraikortasuna bermatzeko dinamikak sustatzea ezinbestekoa da enpresen iraunkortasuna bermatzeko. Bestalde, aktibitate ekonomiko berriak bultzatzeko ekintzaileei aholkularitza zerbitzuak eskaintzea eta enpresa berri horien lehenengo urratsak ematen laguntzea dago Agentziako helburuen artean. Horretarako Debagoieneko Mankomunitateak betidanik GFAko Ekonomia Sustapen zuzendaritzako laguntza izan du "Eskualdeak" programaren bidez. Kasu honetan ere, departamentuko gainontzeko zuzendaritzekin lerrotatuz, aurtan, lankidetzan hori hitzarmen baten bitartez bideratzea proposatzen da.

Hitzarmen horren barnean 2023an, ondoko proiektuak garatuko dira "Eskualdeak" egitarauaren markoan. Proiektu horiek GFAko Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzarekin sinatutako hitzarmenaren babesean garatzea proposatzen da eta ondokoak dira:

🕒 **"ETEetan negozioen eredu berriak sustatu"**: Negozio aukera berriak identifikatzeko eta garatzeko laguntza bideratzea da helburua.

🕒 **"Debagoiena Suspertuz"**: Enpresa txiki eta ertainei bidelagun zerbitzu espezifikoa eskaintzea da helburua. Enpresetan epe ertain eta luzeko ikuspegia txertatzeko eta enpresa eraldatzeko laguntza ematea.

🕒 **"Zerbitzu Aurreratuetan Lankidetzan"**: Lan koadro kualifikatuak eta hazkunde bizkorreko aukerak dituzten negozio eredu eskalagarriak dira. Proiektu

honek ematen dituzten zerbitzuak ezagutzera emateko eta beraien arteko lankidetzak proiektuak sustatzeko laguntzea bilatzen du.

⌚ "LH eta ZTIAM Eskutik" aurreko urteetan bezala Goiaz! foroaren eskutik Lanbide Heziketa bultzatzeko ekimenak burutuko dira, azoka besteak beste, eta aurten bereziki ZTIAM eremuko bokazioak sustatzeko dinamikak bultzatuko dira.

⌚ "Ekin Debagoiengan" proiektu hau urtero garatzen dugu ekintzaile berriei edo ekitea nahi duten pertsoneri zuzenduta dago, enpresaren kudeaketari buruzko (antolaketa, fiskalitatea, komertzializazioa, e.a.) prestakuntza bideratzen da, zenbait tailer eta saio eskainiz.

⌚ "Geroa Bermatuz" oinordekotza edo enpresen jarraipenarekin erlasionaturiko ekimenak antolatzeko proiektua.

⌚ "Txekin-Emekin" enpresa proiektu berriak ekitea nahi dituzten ekintzaileei bideragarritasuna aztertzeko aholkularitza profesionala eskaintzen zaie.

Alde (11): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina, Jose Ramon Zubizarreta

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, 8. puntua aho batez onartzen da.

9- Poltsa konpostagarriak hornitzeko kontratuei dagokionez, hornitzaileei luzapenik ez proposatzea onartzea.

Idazkariak azaltzen du poltsa konpostagarrien bi hornitzaileek honako eskaera hau egin dutela:

“Kontratua abenduaren 31ean bukatzen dela, eta luzapena onartzeko baldintzak aldatzea eskatzen dutela: prezioa igotzea, hain zuzen ere”

Proposatzen da poltsa konpostagarriak hornitzeko kontratua ez luzatzea, eta lizitaziora ateratzea.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (11): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Unai Elkoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina, Jose Ramon Zubizarreta

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

9. puntua aho batez onartzen da.

10. Epeleko zabortegia irekitzeko lanak egiteko azterketa geotekniko osagarriaren kontratazioari dagokionez, Lurgintzari esleitzea onartzea.

Azterketa geotekniko osagarria kontratatzeko zerbitzuen espedientea

Idazkariaren txostena: esleipen proposamena

Epeleko zabortegiko lanak hasteko beharrezkoa den azterketa geotekniko osagarria egiteko zerbitzuari dagokion kontratazio espedientea ikusirik:

Euskadiko Lizitazio Plataforman argitaratu zen 2022ko urriaren 11ean, hamabost eguneko epean eskaintzak aurkezteko.

Enpresa bat aurkeztu da: Lurgintza Ingenieria Geologica, S.L.

2022ko urriaren 27an A Artxiboa ireki zen, ea kontratazio mahaiak ebatzi zuen aurkeztutako dokumentazioa zuzena zela.

2022ko urriaren 28an proposamen ekonomikoari dagokion artxiboa ireki zuten.

AurkeEskaintza ekonomikoa: 22.545 Euro + BEZ (4.734,45 Eur)

Puntuazioa guztira: 100 puntu

2022ko azaroaren 3an administrazio-pleguetako 20.4 artikuluan xedatzen denaren arabera, errekerimentua bidali zitaion enpresari dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkezteko.

Erantzukizunpenko aitorpenean baieztatutako egiaztapenak aurkeztu ditu. Bestalde, behin betiko bermeari dagokionez, honako eskaera hau egin du:

“ Solicita que sea practicada retención en el precio del contrato como medio de constitución de garantía definitiva sobre el importe de la primera factura o, en caso de no ascender a cuantía suficiente, de las siguientes en el contrato de “Servicio de ampliación del estudio geotécnico del vertedero de Epele”

Aplikatu beharreko legedia

Gaiari aplikatu dakioken legeria honako hau da:

— Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 63., 99tik 102ra bitarteko, 116., 117., 122., 124. eta 131etik 158ra bitarteko artikulua eta bigarren, hirugarren eta hamabosgarren xedapen gehigarriak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

— 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.

— 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena. (Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu ondoren indarrean dauden artikulua).

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legearen 108. artikulua honela dio: “

Cuando así se prevea en los pliegos de cláusulas administrativas particulares, la garantía definitiva en los contratos de obras, suministros y servicios, así como en los de concesión de servicios cuando las tarifas las abone la administración contratante, podrá constituirse mediante retención en el precio. En el pliego de cláusulas administrativas particulares se fijará la forma y condiciones de retención”.

Azterketa geoteknikoaren kontratazio arautzen duten pleguetan ez da aurreikusten bermea jartzeko modu hori, beraz, ez da onartu behar. Aurreko guztia ikusita, uste da espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta

Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Horregatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 175. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, izenpetzen duenak honako ebazpen proposamen hau egiten du:

Lehenengoa. Ikusirik lizitaziora aurkeztu den enpresa bakarra dela, kontratua Lurgintza Ingenieria Geologica, S.L. enpresari esleitzea, behin betiko bermea Kontratu publikoak arautzen dituen legearen 108.1 artikuluan xedatzen den moduan aurkezten badu. Bigarrena. Dagokion gastua xedatzea.

Arrasaten, 2022ko azaroaren 21ean.
Idazkari-kontuhartzailea

Idazkariak dio, abala aurkeztu dutela, beraz dena zuzen dagoela kontratua esleitzeko.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (11): Garazi Larrea, Maite Anton, Ainhoa Lete, Anik Zubizarreta, Iزار Elorza, Unai Elkoru, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Gorka Artola, Cristina Marquina, Jose Ramon Zubizarreta

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

10. puntua aho batez onartzen da.

11. Galdera eskaerak.

Ez dago.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 12:00etan, bukatutzat eman da bilkura.

Arrasaten, 2022ko azaroaren 28an.

LEHENDAKARIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Gobernu Juntako akta